



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Prisoner (Hust)

FILMIN

Danimarkako Gobernuak espetxe berri bat zabalduko duela jakinarazi du, 'zero tolerantzia' politikan oinarritutako den kartzela bat. Horren eraginez, zabalik dauden hiru espetxeetako bat itxi egingo dute. Zein itxi erabakitzeke, hiru hilabetez ikuskatzaile batzuk bidaliko dituzte espetxe horietara gertatzen den guztia behatzera. Telesailaren ekin-tza nagusiak espetxe 'lasai' batean gertatzen dira. Helburu nagusia gatazkak saihestea eta 'lasaitasun' hori mantentzea denez, kartzelan presoekiko malgutasun handia dago. Bestalde, bertako lan baldintzak eskasak dira, eta prekari-tatea nagusi da langileen artean. Hori horrela, banden artean hierarkiak daude eta droga trafikoak espazio handia hartu du. Baretasun hori, ordea, ekaitzaren aurreko lasaitasuna baino ez da; espetxea ixterik nahi ez badute, neurriak asko zorroztu beharko dituzte. Pertsonaia asko azal-

Canneserries Jaialdian estreinatu eta Eskandinavian arrakasta itzela lortu ostean, Filminen lurreratu da «Prisoner» miniseriea. Ikusten ari nintzela, kartzelako drama azpigereneroko telesailekin zenbat gozatzen dudan oroitu naiz. Gaur8-n aurretik egindako testuak errepasatzen hasi naiz eta ohartu naiz oraindik ez dudala espetxeetako hormen barruan girotutako telesailen inguruko ezer idatzi. Horri konpon-bidea aurkitzeko asmoz, jarraian kartzelako dramen barrunbeetan murgilduko gara, gaiari loturiko pantaila txikiko zenbait izenburu interesgarri aipatzeko.

tzen dira telesail honetan, baina laurengan jartzen du arreta bereziki: espetxe horretako lau langilerengan. Horietako bakoitzaren lana ikusteaz gain, eremu pertsonalera jauzi egingo dugu eta presondegi kanpoko bizitza sakon ezagutuko dugu. Barrukoen, kanpokoen eta langileen sufrimenduaz elikatzen den eta erortzear dagoen erakunde baten alde erakusten du nolabait. Istorioa gartzeko, kartzelako dramen ohiko baliabide narratiboak erabiltzen ditu telesailak, sorpresa gutxi daude alde horretatik, baina Danimarkakoa izateak berezitasun eta nortasun handia ematen dio tele-

sailari. Gordina eta zuzena da, errealista, itzulinguruka aritzen ez den horietakoa; erraietatik kontatua dago. Eta kritika sozialak ere badu tar-tea: Danimarkako kartezeletako baldintzak ezbaian jartzen dira, batez ere, baina, arrazakeria, erlijioa, ustelkeria edota pobrezia ere oso presente daude. Antzezpen lanak apartak dira, eta alor tekniko zein estetiko ere nabarmena iruditut zait: musikak tentsioa areagotzen laguntzen du, kamera mugimendu zakarrek akzio-sekuentziak elikatzen dituzte, eta argazki gris eta ilunaren bitartez pertsonaien gatazkak barruraino sartzen zaizkigu.

Time

MOVISTAR +

Zer nolako erakustaldia eskaintzen duten Sean Bean eta Stephen Graham aktoreek hiru atalez osaturiko telesail motz honetan! Kartzelako drama xumea, iluna, baina aldi berean, hunkigarria. Britainia Handiko kartzela sistemaren erretratu gordina azaltzeaz gain, bizitzan hartutako erabaki txarrek amildegira eramandako pertsonen buruzko erradiografia zehatza erakusten du. Istorio honetako bi protagonista nagusiak legearen alde banatan daude, baina biak etsai-ingurune batean bizirik irauteko saiatzen dira. Sean Beanek erruak oinazetutako gizon bat gorpuzten du: Mark Cobden, kartzelan sartu aurretik pertsona arrunta, aita eta irakaslea. Bat-batean, bizitza goitik behera aldatuko zaio eta lau urteko zigorra bete beharko du. Beste aldean Eric McNelly dago (Stephen Graham, izugarri, betiko moduan), presondegiko funtzionario beteteranoa, hainbat pre-



so talderen babesaz eta kudea-
ketaz arduratzen dena. Itxura
zakarra duen arren, McNellyk
bere lana zintzo betetzen du
eta presoei eguneroko beha-
rretan laguntzen saiatzen da.
Abilezia txundigarritz, Lewis
Arnold zuzendariak eta Jimmy
McGovern-en gidoi bikainak
bi pertsonaia horien barnean
murgilduko gaituzte eta lehen
segundotik haien infernu per-
tsonaletara egiten duten bi-
daia horren barruan ibiliko ga-
ra haien eskutik. Zuzendaritza
lan paregabez, gidoi biribilez
eta interpretazio bikainez josi-
tako istorio zuzena, bortitza,
errealista eta oso gordina. Te-
lesail antologiko honek biga-
rren zati bat ere badu, non is-
torioa eta pertsonaia berriak
diren. Lehenengoan gizonez-
koak dira nagusi; bigarren-
goan, emakumezkoak. Biga-
rren zati horretan, “Game of
Thrones” eta, bereziki, “The
Last of Us” telesailaei esker
oso ezagun egin den Bella
Ramsey, Jodie Whittaker eta
Tamara Lawrance dira prota-
gonista nagusiak; amatasun
erretratu hirukoitza erakusten
digu. Lehenengoa baina gogo-
rragoa iruditu zait.

THE NIGHT OF

HBO MAX

Egiari zor, telesail osoa ez da
espetxeetan gertatzen. Nasir
‘Naz’ Khan da protagonista na-
gusia, Queens auzoan bizi den
pakistanar jatorriko erdi mai-
lako ikaslea. Aitari baimenik
eskatu gabe, familiaren taxia
hartu du Manhattanen antola-
tutako festa batera joateko.
Autoa hartu nahi zuten hain-
bat bidaiariri ezezkoa eman
ostean (ezin baitu taxiko “in
service” mezua itzali), Andrea
Cornish izeneko neska bat igo-

ko da, azkenean, autora. Pa-
seoa, droga eta alkohola tar-
tean, eta hainbat sedukzio jo-
koren ostean, protagonista
neskaren sukaldean esnatuko
da hurrengo goizean. Etxeko
eskailerak igo eta neska agur-
tzera doanean, ordea, hilik to-
patuko du, ohean, labankadaz
josia. Hortik aurrera betiko al-
datuko zaio bizitza. Drama pe-
nal desberdina, ausarta eta,
batez ere, kritikoa aurkituko
duzue harribitxi honetan.
Arrazakeria, justizia, politika,
arau kulturalak, agintaritza,
borroka eta antzeko gaiak jo-
rratzen ditu “The night of” te-
lesailak. Helmuga baino gehia-
go, garrantzitsuena bidea dela
konturatuko zarete. Hori bai,
bidea, maisulanak iruditzen
zaizkidan lehen eta azken atal
zoragarrien artekoa. Aktoreak,
pertsonaiak, gidoia eta errit-
moaren erabilera paregabeak
dira, eta alderdi teknikoak, zo-
ragarria.

EL MARGINAL

NETFLIX

Bahiketa bat ikertzen ari den
bitartean, polizia ohi bat San



Onofre izeneko kartzelan infil-
tratuko da. Erabat gainpopula-
tua, lege bakarra gailentzen da
bertan: indartsuenarena. Kriti-
ka sozial eta politiko bezala
eraikia, Argentinako “El Margi-
nal” telesaila munduari bira
eman dion polizia drama na-
barmena da, non agerian gera-
tzen diren sistema judizialaren
hainbat gabezia. Ekoizpena
errealismo maila harrigarria
eta kalitate bisual zorrotza di-
tuelako nabarmenduko nuke.
Gogortasun handia eta tonu
zakarra dira kartzelako drama
honen ezaugarri nagusiak. Te-
lesail gordina da, non trama
nagusia ia bigarren planora pa-
satzen den, benetako protago-
nista ia guztia xurgatzen duen
San Onofre kartzela baita. Alar-
de tekniko handiko hasiera ba-
tekin, “El Marginal”-ek ikuslea-

rekin azkar konektatzea lortzen
du. Ekoizpena atalez atal haz-
ten doa, erritmo biziari eta bi-
kain zizelkatutako pertsonaiei
esker.

BLACK BIRD

APPLE TV+

“Mindhunter” edota “True De-
tective” telesailen erako propo-
samenak gustuko badituzue,
adi izenburu honekin. Telesaila
osatzen duten osagarriekin ha-
siko naiz. Gidoilaria Dennis
Lehane da: bere eleberririk sarri-
tan egokitu dituzte eta arrakas-
ta handiko filmak izan
dira – “Mystic River”, “Gone
Baby Gone”, “The Drop” edo
“Shutter Island”, besteak beste-.
Soinu banda, Mogwai talde es-
koziarrak konposatua. Aktore
zerrendan, izen ezagunak: Ta-
ron Egerton, Greg Kinnear eta,
erne, Ray Liotta (hil aurretik
egin zuen azkenetariko lana).
Generoa, thrillerra eta kartzela-
ko drama. Zer gehiago behar
duzue? Premisarekin jarraituko
dut, zentzugabea dirudien
arren, benetako gertaeretan oi-
narritutako telesaila baitugu
honako hau. Jimmy Keene (Ta-
ron Egerton) droga trafikatzai-
leari hamar urteko kartzela zi-
gorra ezarri diote. Kartzelan
sartu eta hilabete gutxira, or-
dea, bi aukera proposatuko diz-
kiote: lehena, dagoen tokian ja-
rraitu eta hamar urteak
oso-osorik betetzea, eta bigarre-





na, aske geratzea, baldin eta se-
gurtasun goreneko espetxe ba-
tean sartu eta Larry Hall ustez-
ko serieko hiltzailearen lagun
egiten bada. Zertarako? Hainbat
hilketaren aitortza lortzeaz
gain, neska batzuen gorpuk
non lurperatu zituen jakiteko.
Generoaren ezaugarri den poli-
zia ikerketa ere topatuko duzue,
jakina, baina thriller horietako
bat da, non zimenduak Jimmy
Keene eta Larry Hallen arteko
elkarrizketak diren, Dehanek
zehaztasun milimetrikoz idatzi-
takoak –hor “Mindhunter” tele-
sail bikainarekin gogoratzea
saihetsezina da–. Bien arteko
harremana katuaren eta sagua-
ren arteko jokoa bilakatuko den
arren, bietako batek bakarrik
daki jolasten ari direla.

ESCAPE AT DANNEMORA

SKYSHOWTIME

Oso gutxietsia izan da minise-
rie hau, baina niri aparta irudi-
tzen zait. Zuzendari lanetan
Ben Stiller dugu eta aktore ze-
rrendan, Benicio del Toro, Patri-
cia Arquette eta Paul Dano iza-
rrak. Hirukote protagonistaren
antzezpen lana biribila da; Pa-
tricia Arquetterena, bereziki.
2015. urteko New Yorkeko goi
mailako segurtasuneko kartzela
bateko bi preso arriskutsuren
benetako ihesaldia du oinarri.
Zazpi kapituluko miniseriea da,
su motelean kozinatzen doana,

baina apurka-apurka guztiz ha-
rrapatzen duena. Horrez gain,
kartzelako bizitza erakusten
duen drama interesgarria da,
baita Amerika sakonean bizi di-
ren pertsonen erretratua gordi-
na ere. Narrazio lan oso zaindua
du oinarri “Escape at Dannemo-
ra”-k; kutsu errealista du (gidoia
polizia txostenetan oinarrituta
dago adibidez), baina, aldi be-
rean, elementu oso zinemato-
grafikoz josia dago.

PRISON BREAK (LEHENENGO DENBORALDIA)


DISNEY +

Telesailak eta espetxeak aipa-
tzen hasita, derrigorrezkoa da
“Prison Break” aipatzea. Ikusle
askorentzat adikzio hutsa izan
zen eta, 2005ean estreinatu ze-
nean, jarraitzaile mordoa bere-
ganatu zuen. Michael Scofield,

Lincoln Burrows, Sucre, Abruzzi,
Sara Tancredi eta konpainiaren
izenak garunean iltzaturik gera-
tu ziren betiko. Bost denboraldi,
90 kapitulu, film bat eta sekuela
bat dituen arren, lehen denbo-
raldia da gomendatzen dudana
bakarra, bigarrenetik aurrera te-
lesaila sinesgarritasun, koheren-
tzia eta zentzu guztia galtzen
joan baitzen apurka-apurka, ia
komedia bihurtu arte nahi gabe.
Premisa bera nahiko zoroa eta
zentzugabea den arren, lehen
zatiak ezin hobeto funtziona-
tzen du kartzelako drama frene-
tiko eta oso entretenigarri mo-
duan. Michael Scofield da
telesailaren protagonista nagus-
ia, plan korapilatsu bat gauzatu
nahi duen gaztea: Fox River ize-
neko segurtasun goreneko kar-
tzelan sartu eta Lincoln Burrows
anaia erreskatatu nahi du. Ho-
rretarako, espetxetik ihes egin
ahal izateko plano eta doku-
mentu guztien tatuajeaz josi du
gorputz osoa

WENTWORTH/OZ

“Wentworth” eta “Oz”, telesail
bikainak diren arren, une ho-
netan ez daude Hego Euskal
Herriko Vod plataformetan
ikusgai; aipamena egitea,
behintzat, garrantzitsua irudi-



tzen zait. Zoritzarrez, emaku-
mezko protagonista gutxi to-
patu daitezke azpigenero ho-
netan; “Orange Is the New”
adibide interesgarria den
arren, kanpoan utzi dut kome-
di ukituak dituelako eta gehia-
go zentratu nahi nuelako dra-
metan. “Wentworth”-ek, hala
ere, badu gainerako telesail-
tatik bereizten duen osagarri
bat: emakumezkoen espetxe
batean girotua dago. “Orange
Is the New Black” baino iluna-
goa eta ausartagoa iruditzen
zait. Australiakoa da eta zortzi
denboraldi eta 100 atal izan zi-
tuen. Bigarren aldiz, “Oz”,
1997ko telesail txalotua: HBO
ren urrezko telesail sorten
lehenengoetakoa izan zen, ge-
rora etorri baitziren “The So-
pranos”, “Six feet Under” eta
“The Wire”. Oswald State Rec-
tional Facility izeneko segurta-
sun goreneko espetxeko bate-
ko egunerokoa kontatzen du.

